



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ANA MADARIAGA
BERRIZ, 2012/04/29

Egunon! Berrizko alkate jauna, Agintariok, Gerediaga Elkarteko ordezkariak, Berriztarrak eta Durangaldeko Merindadeko lagunok.

Eskerrik asko zuen artean egon eta aukerea emon deustazuelako Iturriza eta Zabala-tar Ramon jauna omentzeko, hain historialari, artxibozain eta ikerlari entzutetsuak merezi eban eta Iturrizak zuztarrak Berrizen ebazan, eta bere lurrean, Bizkaian, sendo errotuta eukazan benetan.

Iturriza bere sasoikoa izan zan, gizon ilustratua, edegia eta asko ibilitakoa, esaterako Mexikon, Kuban, Frantzia eta Italian.

Zuztarrak herrian sakon dituen euskaldun horreetarikoa izan zan. Berak gauzatu egin eban José Maria Iparraguirre maisuak geroago kantatuko eban “Eman da zabalzazu munduan fruitua”

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari moduan, beti dot atsegingarri Gernikako Haretxaren landarak sartzeko ospakizunetan parte hartzea. Bardin Argentinako Rosarion dan zein New Yorken dan. Bardin, Galiziako Padronen edo Sevillako Rinconadan izan. Bardin Venezuelan, Kolonbian zein Katalunian dan, baina bardin be Erandion bada be. Azken urteotan, Gernikako Haretxaren oinordekoak askatasun-gogoaren ikur izan dira, baita munduko beste herriakazko alkartasunaren ikur be.

Arturo Campiónek esango leuken legez, Gernikako Haretxa tradizino eta aurrerabidearen arbolea da, sendoa eta zindoa.

Gernikako Haretxa eta haren oinordekoak gure Herriaren enbaxadore bikainak izan dira. Zilegi bekit futbolaren inguruko konparaketa bat egitea eta esatea “harrobia” dauen arbolea dala geurea, munduan zehar frutu ederrak emoten dituen.

Nazinoarteko arbolea da, gure lurrean sendo errotutakoa.

Zer esango deusuet ba! Gure Athletic-en modu moduan. Ganera esan deusuet landatu diran azkenetariko bat Argentinan, Rosarion, izan dala, hain zuzen be Marcelo Bielsaren jaioterrian.

Landara koxkortu hau hondino be gaztea da; 10 urte daukaz.

Lehenengo urteak ezitan emon ebazan, ondo-ondo zainduta Garmoko mintegian. Gero, urte batzutan, aske hazi da Ganguren mendialdean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Orain Berriztarren aintzakotza eta maitasuna izango dauz. Landara honek, barriz, berezitasun bat izango dau, zorioneko berezitasuna ganera, ze bakean hazteko aukerea izango dau.

Bake barik luzaroegi egon gara. Oraingoan, lehenengoz sartzen dogu landara bat Euskadin bakea nagusi dala.

Landara hau haziz joango da itzulbiderik bako Euskadi baten, ETA betiko desagertuta dagoala eta itxaropenak atek zabalik dituala, sasoi ilunetatik urrun.

Landara gazte honen moduan bakeak be zaindu beharrak dakarz; goxo-goxo, kontuz-kontuz.

Gure landareau hazi egingo da eta Bakea be emonkorra izango da gaur omentzen dogun Iturriza eta Zabala-tar Ramonek hainbeste maitatu eban Euskal Herri honentzako.

Eskerrik asko Berrizko Udalari eta Gerediaga Elkarteari gure landarea zaintzeko hartu daben konpromisoagaitik.

Eskerrik asko be euskal herritar guztiei bake-itxaropenak zaindu eta babesteagaitik, zorionez gure Herriarentzat bakearen garaia heldu da eta.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

**ANA MADARIAGA
BERRIZ, 29/04/2012**

Egunon! Alcalde de Berriz. Autoridades. Representantes de la Asociación Gerediaga. Ciudadanos y ciudadanas de Berriz. Amigos de la merindad del Duranguesado.

Muchísimas gracias por poder compartir con todos ustedes esta jornada de homenaje al historiador, archivero y papelero Juan Ramón de Iturriza y Zabala.

Iturriza fue un berriztarra anclado con profundas raíces en su tierra vizcaína.

Iturriza fue también un ilustrado de su época, viajado, abierto a otros pueblos, que conoció Mexiko, Cuba, Francia o Italia.

Fue uno de esos vascos bien anclado en su pueblo.

También supo hacer realidad ese “Eman da zabalzazu munduan fruitua” que supo definir con maestría después José Maria de Iparraguirre

Como Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia siempre es un placer participar en la plantación de un nuevo retoño del Árbol de Gernika. Desde Rosario en Argentina hasta la zona cero en Nueva York. Desde Padrón en Galicia a La Rinconada en Sevilla. En Venezuela, Colombia o Cataluña, pero también en Erandio, en los últimos años retoños del Árbol de Gernika simbolizan nuestros anhelos de libertad y solidaridad con otros pueblos del mundo.

Como diría Arturo Campión, el árbol de Gernika es un árbol de tradición y de progreso, estable y sano.

Nuestro Árbol de Gernika y sus retoños han sido magníficos embajadores de nuestro país.

Si me permitís la comparación, es un árbol con cantera que sabe dar frutos inmejorables por todo el mundo. Es un árbol internacional con raíces fuertes en nuestra tierra... como nuestro Athletic, vamos y, además, ya os decía que uno de los últimos retoños ha sido plantado en el Rosario natal de Marcelo Bielsa.

Este hermoso retoño es todavía joven, 10 años.

En sus primeros años fue cuidado con esmero en el vivero del Garmo y después ha crecido en libertad en la sierra de Ganguren.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Ahora recibirá el reconocimiento y cariño del pueblo de Berriz. Y este retoño tiene además algo muy especial, una afortunada singularidad, va a seguir creciendo en Paz. Han sido demasiadas décadas. Ahora, por primera vez, la plantación de este retoño la hacemos en una Euskadi en paz.

Este retoño crecerá en una Euskadi en la que es impensable una vuelta atrás, en la que ETA ya es definitivamente pasado, en una Euskadi que mira con esperanza al futuro.

Y como nuestro joven retoño, también la Paz, debe ser cuidada con sumo esmero, alimentada con cariño y dedicación.

Nuestro retoño crecerá y también la Paz dará frutos para este país nuestro que tanto quiso nuestro homenajeado, Juan Ramón de Iturriza.

Gracias al Ayuntamiento de Berriz y a la Asociación Gerediaga por su compromiso de cuidar nuestro retoño.

Gracias a toda la ciudadanía vasca por cuidar esta esperanzada nueva etapa en Paz que se abre de par en par para nuestro pueblo.